

JOSEBA A. GARAIALDE jauna

Gasteizen, 2000ko uztailearen 19an

Jesus Mari Makatzaga

Agur, Garaialde jauna:

Pare bat zalantzari buruz galdera egiten diguzu zuek berriki jaso dugun gutun batean. Lehendabizikoa *-zale* atzizkiaren erabilera bati buruzkoa, *kamioizale*, *garraiozale* adibideetan dugunari buruzkoa. Horietaz diozu ez direla egokiak zaletasuna edo afizioa adierazten ez dutelako; egia da hori dela seguruenik *-zale* atzizkiaren erabilera hedatuena. Hala ere, oso sustraituak dira zenbait lekutan zuek ematen dituzun adibideak bezalakoak: *ardoizale*, *esnezale*, eta abar. Alegia, ardoa edo esnea saltzen duenari esaten zaio hala. Gramatika batzordeak ez litzuke txartzat emango adiera horretan ere.

Bigarren galdera *berdin* eta *bera*-ri buruzkoa da. Hori argitzeko bide errazena Gramatika batzordeak argitaratutako lan baten berri ematea nahikoa litzateke. Hona hemen erreferentzia zehatza: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1985: 149. orrialdean, 3.1.2.3.4 "*bera*"/"*berdin*" atalean (1991ko argitalpenean, 92. orrialdean).

Zure galderei erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.